Gauzurtz baten izenak asmatzen

ENEKO OLASAGASTI

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1984 Eneko Olasagasti
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1984ko abendua
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Lolita

(hau esaterakoan
protagonista
urduri jarriko da)

Azkenik,
saltzen zaitut
Lolita
hiri honetako paper merkatuan
egunsentiari biraoka.

Eskribitzen hasten naizen unean
hiriko antzerkiaren aurrean
maitaleen ontziak sutan daude
gogoetak erretzen eta zait mundua
axola
Gaueko lehen argiak, kotxeen begiak
galipotez hornitutako alfonbra baten gainean,
argizaia, maitasunaren zutabea,
bi luma eutsi nahiean.
Urtu da,
lumak
poemak
zikintzen dizkit hatzamarrak,
erre, izoztu naiz gero.

Bi urte hauen erresuma zaila zait bada
ahanztea ere bainan
ez ditut poema hau berria balitz azaltzeko irudirik
zure itzala soinean sentitzen, iluntasunean,
bururatzen zaizkit...
...hainbeste errepikatu ditudan hitzak

ezin ditut gaur idatzi
ezin ditut kasik, lerroak bukatu ere.
Gaurtik aurrera amodiozko poemak soilik
idatzi ditzaket

Urgaineko dizdira zurbila
ez da argizagia
puntako hotela baizik.

Bizitza edema da, izkina eta
musu bakoitza bizitzen baduzu
esaten zenuen maitasun zati bat
utzi bitartean,
hau kantu bat besterik ez da
esaten zenuen
izkinari buelta emanaz.

Eta bihar begiak txiki ere, amodio loguraz
esnatuko zara
eta oraindik zure tristuraren luze luzeak
nire ametsa bustiko du.

Musu bati arrazoi bat bilatu
gauzurtz baten izena asmatu.
Hirurehun metro zeluloide
irudikatu dezakete bainan
ez dira zure keinuak.

Bihar ikusi nahi zintuzket
oraingoz ezer esplikatu gabe,
ezpainak, mozkor arros kuttunak ziztatu
begiak arbola horren kolorea
biok gaubela baten algaran.

Ez dut nahi
gau hori
iragan honetara kondenatu

ez, paper honetan gorde
gure gorputz izerditsuen
memoria.

Bukoskiri

—*Atsegin zaitut itxaroten jakin duzun*
bakarra izan zarelako—
Amante onenak itxaroten dakitenak dira,
gaur beste batekin egonez
zurekin maitatzeko gogoek
hartu naute;
zure larrua bertan,
nere eskuek
zure bularren nahia,
azala, mihia, eztia,
ohialetan
maindire txurietan betirako.
—*Ahanzten lagun iezadazu*—
hau ere.

Seirak dira esaten nizun nik
eta zuk erdi lotan
edozer gauza erantzuten zenuen.
Hantxe gauez, ezkutuan pixkat, bueno erabat
gure gorputz bete ezinak ginen.

Hautsi
biok behar luze batean
gure hasierako ezereza
bainan berriro ez
zuretzat eta ez neretzat.
Literaren hotsak, etxeko besteak
bere pausoek
gordetzen gintuzten ejerzito batek bezala
betirako
gure sekretoa.

Eta bazkal ordutan zutaz galdetzen nuen
besterik gabe.

Betiko erregeak eskailerak igo eta garaian
gehiegi ezagutzen duen koroea
ikusi du.
Gaur keinua ez da gorria
    irrifarra zure fotografia
    galtzen loan
hurrengo gauean zerk esnatuko duen zai.
Orain arte zu ikusi ta gero
mozkortu egiten zen,
zerbait errepikatuko denaren beldur da.
Brilanteen festan urreak ez du diztirarik
lehen bezala
pauso bustiek eraman dute
min minerizko poema honen
azken mailara.

Agian nire fantasiazko herriak ez du izenik
eta zure amodioak agian ez du
anonimatoan sartu nahi
Agian ez duzulako
ez diogula inoiz
begi hertsietako musua elkarri eman
agian desamodioarentzat
arrazoi bat dagoelako.

Beste behin
piztutzean, farol horien argi gorrian
bilatu dut
lanbroari ere galde egin diot inozo
eta esan dit zure hiria, nire fantasia asmatua
urrun dagoela.
Joana gaurkotzat margotzen saiatu naiz
eta ez dut kolorea asmatzen
Nola galdetu suan haizeak nondik datozen
hegoak ez dakienean iparrak noiz joko duen
eta haize denik ezin ahantzi duenean.

Idatzi gabe jarraitzen dut,
dena,
eskua ez altxatzeagatik
papereraino,
hitz juxtua ez esateagatik,
zu ikuslea zarelako
nire amodioa
proiektatzen duten zineman.

Lore ximeldua ez dago jada
argiaren anguluan,
dena gertatu da
                ala ez,
eta nireganatzen ditut
zurekin
sekula izan ez ditudan gogoetak,
pinutegi heroeak
ez dute borrokatzen, haizea mantso doa,
orain konortea galdurik
    amodio ajean
zure musuak, zure bularrak ez ditut
berriro desiratzen dut
suaren helbidea
preso perfumean.

Epilogorik gabeko istorioak
azken fotogramako egunsentia bezala
larrutzen dira,
gure gorputzek ez dute istorio honen
bukaerarik idatzi.

Azkena

Gaur galdetu digu
—berrriro—
zer den amodioa,
ez nekien...
dena esan nahi izan duten
hitzen ondorengo isiltasuna...

Lolita...

(hau esaterakoan protagonistaren begietatik bi malko isuriko dira)

Urrun da beyrouth
urrun al da beyrouth?

Tamainaren lilura

Derrigorrez zoriontsuak izan behar
kutxa honetan
ez dago tristeziarentzat
lekurik.
Eta ez dugu dirurik
handi eta ederrago bat erosteko
tristezia berberaren lekuko gottorra.

Nik ezin ditut
Veneziako kanalak, Parisko zubiak
New Yorkeko luminek beltzen larruetan uzten duten
diztira,
ikusteke sentitu,
Rilkeren elbarria Pragako
malenkoniatik
amore monjaren kantua asmatzen,
ezin ditut gezurrezko poema batean besterik kolatu
mikatza mingain punta.
Gaur ez nago oso jantzita
eta jolasean galdu ditut
minutuak, agian inork
gogoratuko ez dituen lagunen poemekin,
Beverly Hillsen ez ezagututako neska rubien
heriotzaren perfumea, Ginferrerek pirata izan nahi
luke
Modean omen zegok aipamenak egitea, poemetan
Poemak ez,
komunetako hormetara itzuli behar ditugu
telefonoz esan ahots arrotz bati

eskaparateetan idatzi,
bi egunetik behin zarama hila datozenak,
bereiztea ez da haien lana,
ez ditzaten,
telebistako produktu ezin bobeen kartoiak,
amodio apurrekin batera eraman.

Gris guztiak berdez margotu nahi nituzke
kantatu,
basureroaren motorra, dardar zarata
ez aditzearren;

Kontu-korronteetako makinak
sentimenduak eskobatzen
bitartean
edozein bulegotan
zuzendariak,
gure etorkizuna, ekonomia
kontutan hartuz
Lourdesen belaunak
ferekatuko ditu lotsagabe.

Amodioaren urteurrenetarako
urrezko eztaiak,
eta beste zati bat afal otordurako.
Mesedez bere hilobian
ez estandarterik ipini.

Bai askotan esan dut
maite ditut eta asko gure mendi zelai eta arkaitzak
beren berde heze hori
ia erdi ustela
bainan beren apaltasunetik ez dute nahi
nire galderak erantzun.

Askatasunarekin, gaur
egunero bezala
larrua jo diagu,
kalean preserbatibo erabiliak
sakabanatzen dituk,
bainan ez diagu elkarrekin
goizalderarte gelditzean bere beso
beroetan
inoiz lo hartzea lortu.

Espaloietan ez dago lilirik
kanuto etenak besterik
plastikozko basoak, surrealismo berri? baten omenaldia,
eta gu, mugitzen, entzuten, itsuturik bainan begira.

Inoiz zuetaz akordatu ez bainaz ere
gaur Joxemari
zuekin lo egin nahi diat
inoiz inor zuetaz akordatzen ez denez
zuek zarete imajinak
gure gogo beltz aienatuen irudia
Egunkariko elkarrizketa leloan.

Eta Udaletxeko langilea
betidanik ezagutuko bazintu bezala
mintzo zaizu.
Balantzaka, zortzi pezetako Manso lurrunean
anbulantziaren tronoa,
ordu batzugatik madarikatuen zeruan
biharamonean
Bulebarreko bankuak koltxoi ezaguna.

Juan Alberdi Eltontogetaria laguna
apostu iraunkor batean sartu zen
Elkanoren deszendentziarekin.
Lasaitzen zaituzte,

zure sorbaldan ez duzu eskua hatzematen,
bainan hor daude ia denak, badaezpada;
Kerejeta eta bere txakurra,
begirada tristea, kasik
nor gehiagoka,
basoerdiaren erreferentzia.

Ardo txeposo behartu maitea
delirium tremens ez, koitadua,
Mozkorrek badakite
bizitzarekin
beti gelditzen dela azken espuela bat.

Zuri hitzegiten dizut
esnatu orduko lo zauden Donostia,
lainoaren mimosa,
lehortzen zaude negartu ez dituzun malkoak,
garraixi bat datorkizu
barrundik eta
zureganatzen duzu berriro
urteen ingurabilak
ezartzen dizun malenkonian.
Poetak falta zaizkizu
egungo rokeroak,
eta mozkor ospetsuak. Ez,
zure kaiean ez dago amodiozko estibadorerik
homosexual bakarti bat, hiru soldadu itsu bat eginik,
herriko oroimenetaz
zure ametsak begiratzen dituzte,
goitik,
kanpotik, zintzilik
zure lanbro zetazko sareetan.
Bai, eta lo zaude

atzekaldeko mendi gorri haien antza,
aspalditik.
Kotxeak usteltzen doaz martxan,
eta semaforoak gorri daude
ea peatoiak errebelatu eta
ilunabar honen apartekotasuna
txikitzen duten.
Eta hala ere kafeari
ezin diot zure kresalaren gustoa kendu.

C.E. Ferreirori

Egun batez irten zaitezte
tabernetatik
eta zuen irrifar ajatuaz
zulaka itzazue erruki gabe
esperantza erosleen bihotzak.
Nanuen herrian ez dago
esperantzarik saltzeko,
hemen gauak behintzat, debalde.

Beyrouth-1

Metraila telebistan
eta haur begiek goruntz begiratzen dute
etorkizunarekin sinestezinik
—lurrak bakarrik du etorkizuna—
irakur daiteke eskonbro zati batean,
haurrak goruntz begira.
Makina baten zarata, oskorriak
artifiziozko laino ximelak,
artearen azken lorpena bilatu duten
hilotz barne odolduak.
Heriotz txistuaren abisoa
artifiziozko suekin nahasten da,
haurrek goruntz begira nahiezean
eskua luzatzen diote lehen arnas beroari.

Vallejok haurrei hitzegin zien
haurrekin negar egin zuen,
haur horien haurrek hazi eta
Cesar Vallejogatik negar egiten dute.
Eta bien bitartean gu...
...kilometrotara

Beyroutheko malkoaren epistola
ezin idatzian gaude,
absurdoaren kronistak.

Beyrouth-2

Fedayin batzuk militar jantziaz
Hamra kale erdian begiratzen dituzte
saltzaile baten maleta hutsak,
azken erromantikoen itxaropenak gordetzeko
maleta hutsak.

Elianek begiak gorriak ditu
bere etxe aurrean dauden zarama sutsuengatik,
Estrale zineman bilatu zuen bart etxea,
israeldarren inbasio bezperan «Exterminatzailea»
botatzen zuten.

Handik, bonben zarata urrun entzuten da
Akomodadore papera betetzen duen miliziano batek
gorde behar diren neurriak azaltzen ditu.
—hemen ezin da erre, baju hitzegin, eta
transistorean
berriak entzun nahi badituzue, egin ezazue arren
deskantsiloan—

Bainan Elianek,
Beyrouthen beste askok bezala, atzodanik
gertatutakoaz hitzegiteko iragana erabiltzen du.
Maletek hutsik diraute,
lekua egiten borroka galdu guztiei,
atzerrirako bidea
azken hiri erromantikoaren eskonbro gainetan.

Josebari

Retiroan egongo ote dira udaberri loreak
ez da ezer ahantzia aditzen
denak gogorarazten du
gure pasione pasiatze
mozkorgarriak.
Bihar periodikuak kolpetaz mintzatuz
zerbait esnatuko da kaleetan,
lehenengo garbitzaileak
gure ametsei eskua emanaz
egunaren interruptorea sakatuko dute,
euria ari al du?
zerbait arraroa gertatzen da.

Orain urtebete
mozkortzen nintzela idatzi nuen
gaur berdina idatzi behar dut
Arazoa,
arrazoirik ez dudala bilatu edo
ditudanetatik bat aukeratzea.

Lagunei

Isilune guztiak arrotzak zaizkit.
Kidetasunaren faltrikan sartu dut eskua
bero bila
josirik gabeko erretenatik
formaren iluntasunean galdu naiz
gabardina ertzean
beste zulo bat aurkitu arte
eskuak izterrean erritmo xuabe bat ferekatu du.
Arrozkeriaren takoiak erori zaidan
zigarroa zapaldu.
Ez ditut ja erdibana erreko ditugun txinak
eramango.
Komunetara jaitsi naiz eta han berriro ere
bakarrik nagoela ahazten nuen.
Musika gelditzen doa, hitzik ez,
eta kanpo kanpoan uste dut euria ari duela,
isiltasun arrotza soinean.

Maitasun kidetasuna dira
bakarrik ez noala sentiarazten didatenak
eta orain biak urrun zaituztet.
Bizi naiz,
lasaiaz gorrotagarria bihurtu daitekeen hiri honetan
giriak, polizia sideralak eta
motorrez sotana eta kaskoaz doazen praileekin.
Zer esperantza eduki dezaket
urrun bazaituztet.

Erraza da
denbora luzez suaz liluratzea
Erraz
igande arratsaldeetan
gallineroko txisteaz farre egiten genuen
Adoleszentearen beldur ezaren urteetan
galtzen dut gogoa.
Historiako liburuek ezin dute
erlearen desioa asetu.

Zerbaiten erretrato mugaezinaz
neurtzen dira gauak,
eskuetatik erortzen
mila tinbal hausten dira,
soinu deslaietan.

Baso erdi huts batean dauden hutsuneak
irudi eszena oroigarrietan
birregin
paseo baten gauza bitxi
antzerki horren keinu gordeak,
ardo batzuren artean galtzen da
irrifarra.

Ez dut aurkitzen erritmo ezberdin batzuen
deseginketa,
ez dut galdu nahi
zer da kopa batean galtzea.
Gaua laguna zaigu
jira bira erdi eroak
bide estu batean
hautsi behar ez izateko.

Goitik behera, eta
ezkerretik eskubira.
  Aitaren, semearen
eta batez ere amaren izenean.
Nola ordaindu urteen zerbitzua,
mekaniko batek dezakeen
hatzamarrez,
amen.